

Orain Ardura ante la petición del Gobierno Vasco al fondo de reconstrucción de la Unión Europea

ORAIN ARDURA :: 14/10/2020

Tal y como venimos denunciando constantemente el TAV es tremadamente caro, inútil e innecesario. Destruye la naturaleza y despilfarra recursos económicos.

[Euskara]

OrainARDURA

COVID19 - Europako Funtsa

Duela gutxi jakin dugu Eusko Jaurlaritzak Europar Batasunaren berreraikitzeko funtsetik 2.712 milioi euro bideratu nahi dituela Abiadura Handiko Trena eta Hegoaldeko Trenbide Saihesbidea eraikitzea. Kopuru hori datozen 4 urteetan erabiltzeko funtsaren % 26,5 da. Funts hori Europako Marshall Plan gisa iragartzen zaigu, beraien arabera, Covid-19aren krisiari erantzun irmoa emateko, ekonomia erresilienteagoa, berdeagoa, digitalagoa eta inklusiboagoa lortzeko beharrezkoak diren aldaketetan zentratuta.

OrainArdurako partaide garenok uste dugu hori erabateko astakeria dela. Lehenik eta behin, azpimarratu nahi genuke informazio hori Legebiltzarrean egindako galdera batengatik atera dela argitara. Sindikatu edo eragile sozial bakar bati ere ez zaio galduet ea non inbertitu nahiko lituzke Europar Batasunak datozen 4 urteetarako banatuko dituen 10.228 milioi euro horiek, eta 2024-2030 aldirako beste 1.375 euro gehiago izango dira.

Europako funtsaren dirua guztiok eta gure seme-alabek datozen urteetan ordaindu beharko dugun zorraren bidez finantzatuko da. Zerga-sistema izugarri atzerakoia denez, diru-bilketa egoera ahulenean dagoen biztanleriaren bizkar gainean eroriko da. Gainera, etorkizunean murriketa handiagoak eragingo ditu pertsona zaurgarrientzako bideratuta dauden gastu sozialetan. Arlo guztiako murriketek aurrera jarraitzen duten bitartean, milaka eta milaka pertsona gorriak pasatzen ari direnean, egun batean bai eta hurrengoan ere bai konfinamendu berriez hitz egiten diguten bitartean... egoera zail hotan,

Eusko Jaurlaritzaren lehentasuna AHT eta beste azpiegitura handi batzuk dira, eta azpiegitura hauek ez gaituzte putzu hotetatik aterako, kontrakoa ordea, putzu horretan gehiago hondoratuko gaituzte hain zuzen. OrainArdura osatzen dugun sindikatuok, erakundeok eta norbanakoak

lehentasunezkotzat jotzen dugu egoeraz jabetzea eta lehen lerroan jartzea AHTRa bideratutako funts guztiak benetan behar diren lekuetara bideratzeko aldarrikapena, hau da, Osasuna, Enplegua, Hezkuntza eta Irakaskuntza,

Pentsioak, Mendekotasuna, Etxebizitza, eta abar. Era berean, lanean jarraituko dugu Orain Ardura ekimenarekin erakunde gehiago batzeko.

Etengabe salatzen ari garen bezala, AHT izugarri garestia da, alferrikakoa eta ez dugu behar. Natura suntsitzen du eta baliabide ekonomikoak xahutzen ditu.

Azkenaldian, hainbat erakunde ofizialek, hala nola Parisko Kontuen Epaitegiak, Madrilgoak, Lisboakoak, Madrilgo Carlos III.a Institituak eta, oraintsuago, Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independenteak eta hainbat ekonomista eta fundaziok zalantzan jarri dute haren bideragarritasun ekonomikoa eta finantzarioa, eta baita ere hura geldiarazteko eskatu dute.

Euskal Herrian, 2020ko urriaren 12an

[Castellano]

ORAINARDURA-AHORA RESPONSABILIDAD Fondo europeo COVID-19

Recientemente hemos conocido que el Gobierno Vasco quiere destinar 2.712 millones de euros del fondo de reconstrucción de la Unión Europea al tren de alta velocidad y a la Variante Sur Ferroviaria. Esta cantidad es el 26,5% de dicho fondo para los próximos 4 años. Este fondo se nos anuncia como un Plan Marshall europeo para, en su opinión, dar una respuesta contundente a la crisis del Covid-19, centrada en las transformaciones necesarias para lograr una economía más resiliente, verde, digital e inclusiva.

Quienes formamos parte de OrainArdura entendemos que esto es una absoluta barbaridad. Antes que nada, nos gustaría remarcar que esta información ha salido a la luz por una pregunta parlamentaria. Ningún sindicato ni organización social ha sido consultada sobre dónde les gustaría destinar 10.228 millones de euros de la Unión Europea para los próximos 4 años, a los que se sumarían otros 1.375 euros para el periodo 2024-2030.

El dinero del fondo europeo se financiará a través de deuda que deberemos pagar todos y todas así como nuestros hijos e hijas, los años venideros. Siendo el sistema fiscal tremadamente regresivo la recaudación va a recaer sobre la población más desfavorecida .Además va a suponer en el futuro mayores recortes y reducciones en los gastos sociales destinados a las personas más vulnerables. Mientras siguen los recortes en todos los ámbitos, mientras miles y miles de personas están literalmente con el agua al cuello, mientras nos hablan un día sí y otro también de nuevos confinamientos...; en esta situación, la prioridad del gobierno vasco es el TAV y otras grandes infraestructuras que no nos van a sacar de este pozo en el que nos encontramos, sino que nos van a hundir más en él.

Los sindicatos, organizaciones y personas que formamos parte de Orain Ardura consideramos prioritario que se tome conciencia de la situación y se ponga en primera línea la reivindicación de que todos los fondos destinados al TAV se destinen a donde realmente hacen falta es decir, en Empleo, Sanidad, Educación y Enseñanza, Pensiones, Dependencia, Vivienda etc. A su vez, seguiremos trabajando para sumar más organizaciones a esta iniciativa.

Tal y como venimos denunciando constantemente el TAV es tremadamente caro, inútil e innecesario. Destruye la naturaleza y despilfarrar recursos económicos. Últimamente diversas instituciones oficiales como el Tribunal de Cuentas de Paris ,el de Madrid ,el de Lisboa ,así como Instituto Carlos III de Madrid y más recientemente la Autoridad Independiente de Responsabilidad Fiscal así como múltiples reconocidos economistas y

fundaciones han cuestionado su viabilidad económica y financiera y hasta han llegado a solicitar su paralización.

En Euskal Herria, a 12 de octubre de 2020

<https://eh.lahaine.org/orain-ardura-ante-la-peticion>